AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1305

169/2013 EBAZPENA, otsailaren 14koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Maitane Arrizabalaga Kaltzakorta andrea Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Pertsonaleko zuzendari kargutik kentzen duena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 12ko 2138/2010 Ebazpenaren bidez, Maitane Arrizabalaga Kaltzakorta andrea Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Pertsonaleko zuzendari izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBATZI DU

Lehenengoa.– Maitane Arrizabalaga Kaltzakorta andrea Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Pertsonaleko zuzendari kargutik kentzea eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau 2013ko otsailaren 14tik aurrera egongo da indarrean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko otsailaren 14an.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON ETXEBERRIA CRUZ.